

## TALDEAN PROIEKTUAK AURKEZTEKO AKORDIOAK JASO BEHARREKO ARLOAK

Akordioak ondoko arloak txertatu beharko ditu:

- ✓ TALDEA: Elkartean parte hartuko duten enpresak
- ✓ HELBURUA: Elkartearen helburua/k
- ✓ ORDEZKARIA: Taldearen ordezkari gisa arituko den enpresaren izendapena, dagozkion betebeharrak betetzeko behar beste botererekin.

Enpresa ordezkari hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenaz eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bere gain hartuko ditu, halaber, prozesua ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarriketa eta harremanen zereginak.

- ✓ KONPROMISOAK: Taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak eta horietako bakoitzak eskatzen duen diru-laguntzaren zenbatekoa ( horiek ere onuraduntzat joko dira)

Konpromiso horiek *“Partaideen eta kostuen zehaztapena”* dokumentuan jasoak daude. Beraz, alderdi hau akordioan txertatzeko eranskin horri egingo zaio erreferentzia ( **Adierazpen hau erabili daiteke:**” Taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak eta horietako bakoitzak eskatzen duen diru-laguntzaren zenbatekoa eskaeran aurkeztutako *“Partaideen eta kostuen zehaztapena”* dokumentuan jasotzen dira.”)

- ✓ SINADURAK: Taldea osatzen duten enpresa guztien sinadurak (Zuzenbidean baliozkoa den edozein bide bitartez enpresaren ordezkaria dela egiaztatzen duen pertsonagatik)

**Oharra:** Eskaerarekin batera taldea osatzen duten enpresa bakoitzaren aitorten erantzulea eta enpresa motaren aitortpena aurkeztu behar dira